

## HUHEZIKo ikasleek bi autobus zerbitzu izango dituzte aukeran etxetik fakultatera etortzeko

2007/09/14

Irailaren 21ean hasita, Mondragon Unibertsitateak bi autobus zerbitzu ipiniko ditu La Guipuzcoana autobus konpainiarekin batera, nahi duten ikasleak ekartzeko Gipuzkoatik eta Bizkaitik.

Zerbitzu bat **Azpeititik** abiatuko da egunero, **goizeko 06:35ean**, eta jasoko ditu **Azkoitia, Elgoibar eta Eibarko ikasleak**. Bigarren zerbitzua abiatuko da **Etxebarriko metro geltokitik**, hori ere goizeko 06:35ean, eta jasoko ditu **Zornotza, Durango, Matiena, Atxondo eta Elorriko ikasleak**. Autobus biek Arrasaten egingo dute transbordo, Eroski hipermerkatuaren ondoan, eta handik ni norantzetan banatuko dira: bat **Oñatira** joango da, Enpresa Zientzien Fakultatera, eta bestea **Arrasatera, Goi Eskola Politeknikora, eta Eskoriatzara, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatera**.



### Prezioak

Zerbitzu biek bi tarifa eskainiko dizkiete ikasleei. A tarifa autobusa egunero hartuko dutenei, eta B tarifa astean bi egunear datozenei.

#### Azpeitiko lerroa

Herria	A aukera	B aukera
Azpeitia	1.352 €	325 €
Azkoitia	1.325 €	325 €
Elgoibar	800 €	200 €
Eibar	700 €	175 €

#### Etxebarriko lerroa

Herria	A aukera	B aukera
Etxebarri	1.352 €	325 €
Zornotza	1.000 €	250 €
Durango	700 €	175 €
Matiena	600 €	150 €
Atxondo	500 €	125 €
Elorrio	500 €	125 €

Zerbitzu hau erabili nahi duten guztiek, izena eman beharko dute HUHEZIKo idazkaritza akademikoan, **irailaren 4tik 17ra**.